

Makaltasunean lagun egin



Familia Amoris Laetitia
Año 2021 - 2022

Klik egin
hemen

Familiaren urtea



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA

Familia, Jainkoaren Hitzaren argitan

«Elizak arretaz eta arduraz lagun egin behar die bere seme eta alabarik ahulenei, maitasun zauritu eta galduaren arrastoa jasaten dutenei, berriz ere konfiantza eta itxaropena emanaz, noraezean dabiltzanak edo enbataren erdian daudenak argitzeko jendartera eramandako portuko itsasargi edo argi-zuzi bezala». AL 296



Metibazioa Frantzisko Aita Santuarekin

«Gaur egun, familiaren ahultasunak proba sendoak jasaten ditu. Denok gara ahulak, eta banantzeak, dibortzioak eta elkarbizitzak egia bihurtu dira mundu osoko familia askorentzat. Elizaren eginkizuna da Jainkoarengandik hurbil iraun nahi dutenen bila ateratzea, beren porrot eta sufrimenduak Ebanjelioaren betetasunerantz jotzeko aukera bihurtzen laguntzeko».

«Egoera bakoitzean, bihozberatasunaren gozagarriaz baliatzea da garrantzitsua zauriak arintzeko eta pertsoneri abegia sentiarazteko, egia errespetatuz. Ezinbestekoa da jendeari barkatzen, ulertzen, itxaroten irakastea»



Lekukotasuna

«Familia ahulek ezinbestekoa dute bisitak jasotzea, iritziak trukatzeko, ulermena eta aholku espiritualak, beren buruarenganako konfiantza berreskura dezaten».

«Familia bakar bat ere ez a elkartetik kanpo geratuko, edozein izanik ere arazoa. Ezkontza, zorionerako lekua da ez zoritxarrerako lekua. Elkarrekin erakutsi behar die familia hauei zein garrantzitsua den seme-alabak etorkizun hobeari begira babestea eta gidatzea».





Otoitza

Jauna,
lagundu maitasunean sinesten,
baita probaldietan ere.

Ez dezagula inoiz amore eman gure
famiaren aldeko borrokan, ez gatazka
sufirimenduaren iturri denean, ez
barkamenak zail edo ezinezko dirudienean
ere.

Zuregan ez dago ezinezkorik, zure errukiak
indarberritu egiten gaitu, zure Hitzak
gidatu eta zure presentziak itxaropenez
bete.

Amen



Eguberri-kanta



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA



Familia Amoris Laetitia
Año 2021 - 2022



Eguberriak familian

Jaitsi Espainiako Gotzainen
Batzarrak argitaratu duen
"Orar en familia en Navidad"
liburuxka.



Sakontzeko

'Amoris Laetitia' irakurri.
8. kapitulua

Gehiago nahi izanez gero,
[klik egin hemen!](#)

